

ERASMUS+ LAGUNTZAK ESLEITZEKO DEIALDIA

Goi Mailako ikasleen mugikortasuna · 2026-2027 ikasturtea

Basauri, 2026ko irailaren 9a

IKASLAN Mobilityk Erasmus+ laguntzen deialdia egiten du 2026-2027 ikasturterako, IKASLAN sareko Goi Mailako ikasleek atzerrian prestakuntza-mugikortasunak egin ditzaten.

Mugikortasunak **Erasmus+ KA131-HED** programaren esparruan egingo dira.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2026-2027 ikasturtean Dual Orokorreko mugikortasunak atzerrian egiteko Erasmus+ laguntzak esleitzeko prozedura ezartzea.

2. Beka kopurua

2026-2027 ikasturterako, IKASLAN Mobilityk guztira **225 beka** ditu Goi Mailako ikasleen Dual Orokorreko mugikortasunetarako.

Laguntzen helburua atzerriko mugikortasunak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea da, eta ez dute zertan gastu horien guztizkoa estali, laguntzen baldintza espezifikoei ezarritakoaren arabera.

3. Ikastetxe hartzaileak

Deialdi honetako mugikortasunetan parte har dezaketen ikasleak dituzten IKASLAN sareko ikastetxeek eskatu ahal izango dituzte laguntza hauek.

Ikastetxe bakoitzak eskatzen duen beka kopurua IKASLAN Mobilityk ezarritako prozeduraren bidez jakinaraziko du.

4. Bekak ikastetxeei esleitzea

Bekak ikastetxe eskatzaileen artean banatzeko, IKASLAN Mobilityk ezarritako irizpideak aplikatuko dira, ikastetxe bakoitzaren heziketa-zikloen kopurua erreferentziazat hartuta.

Esleipena egin ondoren, ikastetxe bakoitzari zenbat beka dagozkion jakinaraziko zaio.

5. Ikasleen hautaketa

Bekak esleitu ondoren, ikastetxe bakoitzak bere barne-hautaketa prozesua egingo du esleitutako plazak betetzeko.

Hautagaiak baloratzen hasi aurretik, ikastetxeak egiaztatu beharko du IKASLAN Mobilityk ezarritako aurretiazko baldintzak betetzen dituztela. Baldintza horiek ez dira puntuatzen, eta hautagaitza balorazio-fasera igaro daitekeen zehazten dute.

Baldintza horiek betetzen dituzten hautagaitzak IKASLAN Mobilityk ezarritako ikasleak hautatzeko irizpide komunen arabera baloratuko dira. Irizpide horiek deialdi honekin batera argitaratuko dira.

Irizpide horiek aplikatzearen ondorioz, ikastetxe bakoitzak esleitu zaion beka kopuruari dagokion ikasle kopurua hautatuko du.

6. Hautatutako ikasleen erregistroa eta dokumentazioa

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, ikastetxe bakoitzak IKASLAN Mobilityren Odoo plataforman erregistratu beharko ditu ezarritako irizpideen araberrako baremazioa aplikatu ondoren esleitutako beka lortu dituzten ikasleak.

Halaber, parte-hartzaile bakoitzari eskatutako dokumentazioa plataformara igo beharko da.

Epea: 2026ko urriaren 19a

7. Laguntzen ezaugarriak

Laguntzen baldintzak eta ezaugarriak deialdi honekin batera argitaratuko den “Dual Orokorra Europar 2026-2027 – Erasmus+ KA131 Europako Programa” dokumentu espezifikoa jasotzen dira.

Mugikortasuna kudeatzeko ikasleek aurkeztu beharreko dokumentazioa ere dokumentu horretan zehazten da.

8. Aplikatu beharreko dokumentazioa

- Ikasleen aurretiazko baldintzak.
- Ikasleak hautatzeko irizpide komunak.
- Dual Orokorra Europar 2026-2027 – Erasmus+ KA131 Europako Programa.

9. Argitalpena eta ondorioak

Deialdi hau eta hari lotutako dokumentazioa IKASLAN Mobilityk ezarritako kanalen bidez argitaratuko dira.

Deialdia 2026-2027 ikasturteari dagozkion mugikortasunei aplikatuko zaie.